

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Fleming



ARITZ GALARRAGA

Bilboko taberna batean geunden geratuta -anonimotasuna gordeko diot lekuari, orain jakingo duzue zergatik-. Herritik hirira egiten duenaren antzera, garaiz iritsi nintzen; alegia, ordua baino askoz lehenago. Taberna ireki berri, bakarrik eman nuen tarte bat, musika ezin hobearekin: Still Corners, El Michels Affair, etc. Ez zitzaidan hiltzeko leku txarra iruditu. Are nire heriotza bera horrelakoa izatea nahiko nuke: bare, doinu arinak arimaren gozagarri, heriotza kolpetik heldu arte -kasu honetan, koadrila zaratsatu bat izan zen-. Eskerrak jendearekin batera nire kontaktua ere etorri zen.

Anonimotasunarekin jarraitzeagatik, soilik esango dut MZ inzialei erantzuten diela nire kontaktuak, eta gure Michel Onfray gisa defini genezakeela. Aspaldi elkarrekin egon gabe, kontu ugari aletu genituen, interesgarrienen artean euskal gizon zahar-runo ezagunei buruzkoak, hemen osoki aipatu ezin direnak -irrikaz espero dut horiei buruz inoiz ezer idaztea-. Baina gehien atsegin izan nuena ondorengo paseotxoak izan zen: Fleming plazara eraman baininduen, euripean, penizilina deskubritzeagatik ezaguna den doktorearen eskultura ikustera. Bertan aipatu zidan eskultura hori auzoko prostitutek finantzatu zutela, esker-rak emateko, noski, hainbat gaixotasunen larria aurrezteagatik. Istorioak *invent* handi bat izateko itxura guztia dauka, zinez, baina izango da aspaldian entzun dudak *invent* graziosoena. Italiarrek -eta pedanteek- esango luketen moduan, *se non è vero, è ben trovato*.

Prostituzioaz, egia esan, abolizionista naizen, legeztatzearen aldekoa, ez daukat iritzi argirik -eta gainera ez dit inork eskatu-. Dakidan gauza bakarra da giza praktika gutxi eragiten duela nigan higuin sentimendu handiagorik. Eta MZren ahotan *invent* handiena ere istorio errealea baino puskaz sinesgarriagoa gertatzen dela, misterio, jakinduria, umore poxi bat baldin badauka. ●

EZ HANKA EZ BURU

 ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



"GIZON BATZUK GUREKIN BATERA DAUDE PROZESUAN, BAINA GUTXIENGOA DIRA"

MARI LUZ ESTEBAN, GIZONAK ETA FEMINISMOARI BURUZ

"[Gizon] Batzuk lasai daude, gurekin batera prozesua egiten, gure alboan; gutxiengo bat dira, dena den. Beste batzuk despistatuta daude: ikasi dute diskurtso bat, feminismoa aldarrikatzen dute, baina ez dute barneratu horrek zer esan nahi duen, eta gauza batzuk egin gura dituzte euren rola galdu gabe. Eta beste batzuk daude kontra, eta erreakzio hori segur aski areagotu egingo da: modu berriak sortuko dira feminismoari aurka egiteko, ez derrigorrez bortitzak". **BERRIA (2019/12/8)**



DANI BLANCO